# Akta/Kronika.

## Lezon Energia Komunitatea Eratzeko Prozesua
## 3. saio irekia.
## Pleno Aretoa [2024/12/16]




## 1.- Deskribapena

**1.1.- Oinarrizko informazioa.**

- **Data:** Abenduak 16, astelehena.
- **Saioaren iraupena:** 1,5 ordu.
- **Ordutegia:** 18:30etatik 20:00etara.
- **Lekua:** Pleno Aretoan
- **Antolatzaileak:** Iratzerri eta Lezoko udala.
- **Dinamizazio taldea:**
  - Iratzerri eta Oier Etxebarria Gutierrez (Goiener)

**1.3.- Parte-hartzaileak:** Lezoko bizilagunak norbanako bezala eta herri eragileak

- **Guztira:** 18 pertsona.
- **Genero/sexu banaketa:**
  - Emakumeak: 2
  - Gizonak: 16

**Adinaren arabera:**

< 19 urte: 0
20 – 29 urte: 0
30 – 39 urte: 1
40 – 49 urte: 1
50 – 59 urte: 11
60 – 69 urte: 5
70 – 79 urte: 0

**2.- Saioaren helburuak:**

- **Ezagutu:** Aldaketa klimatikoaren eragina herrian eta honen ondorioak arintzeko eta bertara egokitu ahal izateko Izadi 21ek udalarentzat egiten ari den Energia Plana kokatu eta diagnosia ezagutu.
- **Arakatu:** Parte hartzaileekin batera Lezoko EBKak garatu ditzakeen proiektuen inguruko elkarrizketak abiatu, EBKren zentzua autokontsumo elektrikoaz haratago zabaldu. Taldearen kohesioa lantzen jarraitu.
- **Aukeratu:** Taldearekin batera Lezorako interesgarrienak izan daitezkeen neurri eta energia-proiektuak aukeratzea.
- **Hurrengo pausoak** parte hartzaileekin batera zehaztu.

## 2.- Edukiak .

**2.1.- Iratzerriren azalpenak**

Ekaitzek bileraren nondik norakoak azaldu ditu-

**2.2.- Parte hartzaileen aurkezpena eta etortzeko arrazoia:**

Orokorrean gaiarekin interesatuta eta informatzera etorri direla esan dute eta batzuk gogotsu daudela agertu dute.

**2.3.- Formazioa: Herriko energia planaren kokapena eta diagnosiaren laburpena**

Aldaketa klimatikoa arindu eta bertara egokitu ahal izateko azken urteetako bilakaeraren (2012-2022) diagnosia eta etorkizunerako estimazioak ezagutu.

- Kanpoko energiaren dependentzia (%90)
- Kotsumoa eta BEG isurtzea udalerrian
  - Garraioa lehena eta ondoren zerbitzuak
  - Gasoilaren kontsumoa da nagusi, elektrizitatea bigarrena. Azken urteetan beheranzko joera
- Berriztagarrien erabilera udalerrian:
  - Azken urteetan igoera oso apala
  - Naguiena termikoa da, baina zalantzagarria da instalazio asko bertan behera utzita baitaude
  - Biomasaren igoera 2016an eta fotovoltaikoaren azken urteetako igoera oso apala
- Etxebizitza eta eraikinen egoera udalerrian:
  - Antzinatasuna eta azalera eskualdearen azpitik
  - Energia ziurtagiria eskuratzearen joera gorakorra.. Eskualdearen gainetik

- Udalaren kontsumoak eta beharrizanak
  - Murriztearen helburua gertu baina berriztarrien sorkuntza hutsala
  - Mugikortasunean ere ia ezer ez
- JASANGARRITASUN LEGEAREN BETEBEHARRAK

**3.- Galde erantzunak**

Garraioaren kontsumo datua orokorregia dela aipatu da. Ze ibilgailu dira? Herritarrenak, enpresenak… Izadi21-eri kontsulta egingo zaio.

**3.- Talde lana eta bat egitea.**

Lau taldetan banatu garta parte-hartzaileak eta Iratzerrik emandako gidoi baten inguruan hausnartzea eta ekarpenak egitea eskatu da

## EAEko Jasangarritasun Energetikoaren 4/2019 Legea:

## 2030 urterako Udalaren kontsumo energetikoa gutxienez % 35 murriztea eta B kalifikazioa % 40 udal eraikinetan.

2 1 Udal eraikin guztietan kontzientziazioa kanpainak egin, kartelen bitartez, kontsumo arduratsua egiteko
3 1 Igerilekuan eta kiroldegian doikuntzak egin , adibidez uraren txorrotak murrizteko denbora eta emarian kontrola ezarri.
4 1 Birgaitze informazio bulego bat.
5 2 Igerilekuan tenperatura jeistea
6 2 Kiroldegia egun bat ixten
7 2 Kiroldegia eta igerilekua isolatzen
8 4 Igerilekua udaran ur hotzarekin
9 4 Eraikinen isolamenduak
10 4 Eraikinak partekatu, adibidez gaurko bilera, ikastola beroa dago bainan pleno aretoa ez, eta areto guztia berotu beharra ekiditu daiteke.
11 Igerileku asko Oarsoaldean, baita kiroldegi edo futbol zelai, partekatu. Igerilekuak defizitarioak dira.

## 2030 urterako tokiko administrazioaren kontsumo elektriko eta termikoaren % 32 sorkuntza berriztagarrikoa izatea (hurbileko instalazioen bidez)

2 1 Fotovoltaica Altamirako futbol zelaian, zona antropizada
3 1 Lurreko instalazioak aztertu
4 1 Fiskalizazioa berdea eta penalizazio berdea, hau da instalazioak obariak jasotakoak mantenua minimo bat eta jarraipena.
5 2 Gasa ordezkatu Eskola, Igerilekua eta kiroldegian

6 3 Igerilekua, kiroldegia eta Herri Eskola, ur bero sare bat egin, udalaren gas kontsumo guztia biomasakin ordezkatzeko, 290m hiru erainkin artean. Galdara ur hotza goiko depositotik hartuko luke, berotu eta grabitateaz hiru eraikinetara jeitsi ur beroa.

7 3 Igerilekuan 100kWpko instalazioa fotovoltaikoa egin, gehiena autokontsumituko lukeena

## Natura-ingurunearen erresilientzia areagotzea. Arriskuei aurre hartzea.

2 2 Zuhaitzak landatu/mantendu/zaindu

## Mugikortasuna: Proiektu eta egitasmoak

2 2 Garraio publikoaren frekuentzia igo (trena, autobusa)

Diagnosiaren emaitzan desbiratze bat egon daiteke, garraioan partikularrena ez delako zatitzen.

## 5.- Hurrengo pausoak .

**Urtarrilak 13 eta 27, astelehenak baliatzea proposatu da.**

18:30etatik 20:00etara.

Tokia zehazteko geratu da. Printzipioz Euskara Kultura aretora itzultzea